

Txostena

Informe

Kontuen Epaitegiak 1.035/2014 fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen jarraipen-txostena, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea behar bezala aplikatzeko autonomia erkidegoek hartutako kudeaketa- eta kontrol-neurriei buruzkoa

Informe de seguimiento de las recomendaciones realizadas por el Tribunal de Cuentas en su Informe de fiscalización número 1.035/2014, sobre las medidas de gestión y control adoptadas por las comunidades autónomas para la adecuada aplicación de la ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia, en el ámbito de la CAPV

2018





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. ONDORIOAK.....	8
ERANSKINAK	11
A.1 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUNAREN ARLOKO ARAUDIA GARATZEA	11
A.2 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUN LEGEAN EZARRITAKO EPEAK BETETZEA	13
A.3 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: AUTONOMIARI ETA MENDEKOTASUNARI ARRETA EMATEKO SISTEMAREN INFORMAZIO-SISTEMAN JASOTAKO DATUEN ETENGABEKO EGUNERATZEA	19
A.4 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: IDENTIFIKAZIO PERTSONALAREN ZENBAKIA.....	21
A.5 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: ONURADUNEN GAITASUN EKONOMIKO PERTSONALA ZEHAZTEKO ETA SISTEMAREN PRESTAZIOETAN PARTE HARTZE EKONOMIKOA IZATEKO IRIZPIDEAK	21
A.6 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUNARI LOTUTAKO GASTUAREN AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-KONTROLA.....	22
A.7 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: ESPEDIENTE ELEKTRONIKOA	23
A.8 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: PRESTAZIOEN ADMINISTRAZIO-KONTROLA.....	23
A.9 GOMENDIOAREN JARRAIPENA: PROFESIONALAK EZ DIREN ZAINZAILAENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK	30
A.10 SISTEMAREN FINANTZAKETA.....	32



ABREVIATURAS	39
I. INTRODUCCIÓN	41
II. CONCLUSIONES	42
ANEXOS	45
A.1 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 1ª: DESARROLLO NORMATIVO EN MATERIA DE DEPENDENCIA	45
A.2 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 2ª: CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS ESTABLECIDO EN LA LAPAD	47
A.3 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 3ª: ACTUALIZACIÓN PERMANENTE DE LOS DATOS QUE FIGURAN EN EL SISAAD	53
A.4 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 4ª: NÚMERO DE IDENTIFICACIÓN PERSONAL ...	55
A.5 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 5ª: CRITERIOS PARA LA DETERMINACIÓN DE LA CAPACIDAD ECONÓMICA PERSONAL DE LOS BENEFICIARIOS Y PARA SU PARTICIPACIÓN ECONÓMICA EN LAS PRESTACIONES DEL SISTEMA	55
A.6 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 6ª: CONTROL PRESUPUESTARIO Y CONTABLE DEL GASTO VINCULADO A LA DEPENDENCIA	56
A.7 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 7ª: EXPEDIENTE ELECTRÓNICO.....	57
A.8 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 8ª: CONTROL ADMINISTRATIVO DE LAS PRESTACIONES	57
A.9 SEGUIMIENTO RECOMENDACIÓN 9ª: PROGRAMAS FORMATIVOS PARA CUIDADORES NO PROFESIONALES	65
A.10 FINANCIACIÓN DEL SISTEMA	66



LABURDURAK

AAEE	Autonomia erkidegoak.
AE	Autonomia erkidegoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
AMASIS	Autonomiari eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren informazio-sistema.
APMZL	39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
BAP	Banakako Arreta Programa.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
FD	Foru Dekretua.
FFAA	Foru aldundiak.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GGAMASLK	Gizarte Gaietarako eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseilua.
GOFE	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Araba).
GSDN	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.
GSIN	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala.
GZES	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema.
GZL	12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (Euskal Herria).
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
IMSERSO	Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua.
KE	Kontuen Epaitegia.
LH	Lurralde historikoa.
LHL	27/1983 Legea, azaroaren 25koa, EAEren Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen Harremanei buruzkoa.
LPPE	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.
NISAE	Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa.
TTEE	Toki entitateak.
XG	Xedapen Gehigarria.
ZLLE	Zerbitzuarekin lotutako laguntza ekonomikoa.





I. SARRERA

HKEEk, otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Osoko Bilkurak 2019rako onartutako Lanerako Planean ezarritakoarekin bat etorritz, Kontuen Epaitegiak luzatutako gomendioen jarraipen-txostena egin du 1.035 zenbakiko txostenean (2014an onartu zen txosten hori): “Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendeko egoeran dauden pertsoneri arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea behar bezala aplikatzeko autonomia erkidegoek hartutako kudeaketa-eta kontrol-neurriei buruzko fiskalizazio-txostena, 2018ko ekitaldiari buruzkoa. Lan hau Estatuko gainerako Kanpo Kontrolerako Organoekin eta Kontuen Epaitegiarekin lankidetzan egin da.

Lanaren helburua EAEn hartutako neurriei buruzko txosten bat egitea da, txosten horretan Estatuko autonomia erkidego guztiei orokorrean egindako bederatziz gomendioak betetzeko. Gainera, mendekotasunaren arreta finantzatzeko iturri publikoak eta pribatuak aztertu dira (ikus A.10).

Autonomia Estatutuak euskal botere publikoei esleitzen die pertsonen eta beren taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta errealak izateko baldintzak sustatzeko eta oztupoak kentzeko neurriak hartzea, eta EAEn gizarte-laguntzaren arloko eskumen eskusiboa esleitzen dio. Eskumen horietan oinarrituta aldarrikatzen dira Gizarte Zerbitzuen Legea eta 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroa onartzen duena.

Lurralde Historikoen Legeak lurralde historikoei esleitzen die EAEko gizarte-laguntzaren arloko araudia betearaztea, beren lurraldearen barruan, beren zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak egiteko ahala barne. Bere ahalmenen arabera, lurralde bakoitzak dagozkion prestazio eta zerbitzuen hornidura kudeatzen du. Gainera, toki-erakundeek gizarte-zerbitzuen betearazpenean parte hartzen dute, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean eta garapen-araudian aurreikusitakoaren arabera. Hala, EAEko lurralde-eremuan, mendekotasunari arreta emateko prestazioak kudeatzeko eskumena duten administrazioak foru aldundiak dira, telelaguntza-zerbitzuaren kudeaketa izan ezik, hori Eusko Jaurlaritzak ematen baitu, Gizarte Zerbitzuen Legearen 40. artikulua arabera. Hori dela eta, EAEn, Estatuko araudian autonomia erkidegoei egiten zaizkien erreferentziak foru aldundiei egiten zaizkiela ulertzen da.

EAEn, 2018ko abenduaren 31n, 2.199.088 biztanletik 78.811 onuradunek dute prestazioa jasotzeko eskubidea, eta horietatik 65.017k dagokion prestazioa jasotzen dute.

Mendekotasun Legearen 2. xedapen gehigarriaren arabera, EAEn bere gastu-aurrekontuaren kargura dagokion EAEko sistemako zerbitzuen eta prestazioen finantzaketa kontuan hartuko da euskal kupoaren kalkuluan, Estatuaren eta EAEn arteko Ekonomia Itunarekin bat etorritz.



II. ONDORIOAK

1. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUNAREN ARLOKO ARAUDIA GARATZEA (IKUS A.1)

1.035 txosteneko 1. gomendioa zuzentasunez bete dute hiru foru aldundiek, eta gizarte-zerbitzuei dagokien araudiaren barruan aplikatu beharreko araudia sistematizatu dute, Estatuko araudian eta dagokion garapenean -Lurralde Kontseiluaren akordioen bidez lortua- ezarritakoak betez.

2. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUN LEGEAN EZARRITAKO EPEAK BETETZEA (IKUS A.2)

2018ko abenduaren 31n, eskubidea eskatu zenetik mendetasun-egoera eta dagokion prestazioa onartu arte batez beste 180, 56 eta 180 egun igaro dira AFAn, BFAn eta GFAn, hurrenez hurren, eta horrek esan nahi du legez ezarritako sei hilabeteko epea bete dela.

3. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: AUTONOMIARI ETA MENDEKOTASUNARI ARRETA EMATEKO SISTEMAREN INFORMAZIO-SISTEMAN (AMASIS) JASOTAKO DATUEN ETENGABEKO EGUNERATZEA (IKUS A.3)

Foru-aldundi bakoitzaren kudeaketako informatika-aplikazioetan sartutako datuen fidagarritasuna egiaztatzeko hautatutako espedienteen lagin bat aztertzean, ez da gorabeherarik antzeman. Datu horiek Autonomiari eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren informazio-sisteman jasotzen dira ondoren. Arabako Foru Aldundian, hasiera batean AMASIS plataformak bazterketak egin bazituen ere elkarreragingarritasun-arazoan ondorioz, arazo horiek gerora zuzendu ziren. BFaren eta GFaren aplikazio informatikoez ez dute gerora zuzendutako bazterketen erregistroa gordetzen. Aztertutako espedienteetako bat ere ez zen baztertutzat jo txosten honen datan.

4. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: IDENTIFIKAZIO PERTSONALAREN ZENBAKIA (IKUS A.4)

Hiru foru aldundietan, mendekotasun-sistemaren erabiltzaileek identifikazio pertsonaleko zenbaki bakar eta esklusibo iraunkor bat dute esleituta, 1.035 txostenaren 4. gomendioarekin bat etorriz.

5. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: ONURADUNEN GAITASUN EKONOMIKO PERTSONALA ZEHAZTEKO ETA SISTEMAREN PRESTAZIOETAN PARTE HARTZE EKONOMIKOA IZATEKO IRIZPIDEAK (IKUS A.5)

5. gomendioak zioen autonomia erkidegoek Gizarte Gaietarako eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren 2012ko uztailaren 10eko Akordioan aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoak ziren arau-xedapenak sustatu behar zituztela. Akordio horretan ezarri ziren Autonomiari eta mendekotasunari arreta emateko



sistemaren informazio-sistemaren onuradunen gaitasun ekonomiko pertsonala zehazteko gutxieneko irizpide komunak eta Sistemaren prestazioetan ekonomikoki parte hartzeko irizpideak.

Kontuan hartuta Lurralde Kontseiluaren erabakietan gaitasun ekonomikoa zehazteko jasotako irizpideak ez direla lotesleak autonomia erkidegoentzat, Mendekotasun Legearen 14.7 artikulua araberaren proposamen izaera besterik ez baitute, aztertutako aldi indarrean dauden arau-xedapenak zuzentasunez egokitzen zaizkio Gizarte Gaietarako eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren 2012ko uztailearen 10eko Erabakiari.

6. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUNARI LOTUTAKO GASTUAREN AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-KONTROLA (IKUS A.6)

1.035 txostenaren 6. gomendioa zuzentasunez bete dute hiru foru aldundiek; izan ere, mendetasunarekin lotutako gastuak soilik jasotzen dituen aurrekontu-programarik ez duten arren, ezarritako gizarte-zerbitzuen arretarako programen barruan sartzen dira, eta ez duten arren kontabilitate analitikorik, finkatutako sistema bat dator Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean ezarritako mendekotasun-sistemaren konfigurazioarekin. Horri dagokionez, eta gardentasunean aurrera egiteko eta mendetasunaren guztizko kostua ezagutzeko, abenduaren 27ko 1050/2013 Errege Dekretuak, Mendekotasun Legean ezarritako gutxieneko babes-maila arautzen duenak, ezarri zuen autonomia erkidegoek urtero ziurtagiri bat egin behar zutela, mendekotasunaren arretaren kostua finantzatzeko Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik datozen kredituen aplikazioa eta autonomia erkidegoak helburu horretarako egindako ekarpena islatzeko.

7. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: ESPEDIENTE ELEKTRONIKOA (IKUS A.7)


Txosten hau egin dugun datan hiru foru aldundietan espediente elektronikoa ezartzen ari dira.

8. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: PRESTAZIOEN ADMINISTRAZIO-KONTROLA (IKUS A.8)

1.035 zenbakiko txostenaren 8. gomendioa zuzentasunez bete dute hiru foru aldundiek.

9. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: PROFESIONALAK EZ DIREN ZAINZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK (IKUS A.9)

195/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, zaintzaileei laguntzeko zerbitzua eratzen du, eta bertan sartzen dira informazio-, orientazio- eta prestakuntza-prestazioak, udal-eskumenekoak diren aldetik. Hala ere, foru aldundiek hainbat jarduera egin dituzte eremu horretan, A.9 eranskinean zehaztu direnak.





ERANSKINAK

A.1 1. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUNAREN ARLOKO ARAUDIA GARATZEA

2014an Kontuen Epaitegiak onartutako 1.035 txostenean, egungo araudia sakabanatzeari eta harmonizatzeari dagokionez, egungo araudia eguneratzeko eta harmonizatzeako neurriak hartzea gomendatzen zitzairen mendetasunaren arloan eskumena zuten administrazioei, Gizarte Gaietarako eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluan adostutako irizpideak txertatuz.

Egindako lana izan da gardentasunari eta irisgarritasun terminoetan gaur egungo egoera egiaztatzea, Mendekotasun Legean araututako eskubide subjektiboaren onuradunari dagokionez, eta ziurtatu da arau-garapenak Estatuko legearen eta hura garatzeko gainerako arau eta akordioen postulatu orokorreari jarraitu diela.

EAEEn, mendekotasunaren arretaren arloko araudia Gizarte Zerbitzuen Legeak eta bi plangintza-tresna osagarrik garatzen dute: 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, eta EAEko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoak, Gizarte Zerbitzuen Mapa barne hartzen duena.

Hiru elementu horiek gizarte-zerbitzuen arloko eskumenen arau-esparrua mugatzen dute, eta, aldi berean, erakundeen arteko kudeaketa- eta koordinazio-baliabideak eratzen dituzte Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen eta prestazioen garapen koherentea eta orekatua bermatzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Ongizate Estatuaren funtsezko zutabeetako bat da, herritar guztien gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa bermatzeko; eskubide hori erantzukizun publikoko sistema baten barruan definitzen da, estaldura unibertsalekoa, eta titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduz osatua. Horren helburua pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea eta autonomia bultzatzea da, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioa garatuz, batez ere prestazio eta zerbitzu pertsonal eta erlazionalen bitartez.

Helburu horri ikuspegi komunitarioa gehitu behar zaio, gizarte-zerbitzuen arreta eta esku-hartze eredu den aldetik, zeinaren bidez lehentasuna ematen baitzaio pertsonak beren ohiko bizitza-ingurunean integratzeari eta mantentzeari, batez ere etxean.

Euskal Gizarte Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa da euskal administrazio publiko eskudunek eta, bereziki, foru aldundiek hornidura horren funtsezko arduradun gisa bermatzen dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak identifikatzeko erabiltzen den tresna.

EAEEn, gizarte-sistemak arreta soziosanitarioaren arloan dituen eskumenen antolaketa hiru mailatan egituratzen da. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak berak onartzen duenez, gizarte-sistemaren antolamenduaren ikuspegitik, udal-zerbitzuek funtsezko zeregina dute arreta komunitarioan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarritzko unitate eta sarbide-gune nagusi baitira, lehen mailako arreta-hornitzaile diren aldetik (tele-asistentziako



zerbitzua ere estadio horretan dago, eta EJren titulartasuna du). Zerbitzu horiek bigarren mailako arretakoak, foru eskumenekoak (lurralde-eremuan) eta Eusko Jaurlaritzakoak (autonomia-eremuan) osatzen dituzte, herritarrei emandako laguntzetan intentsitate eta espezializazio handiagoa hartzen baitute beren gain.

Hiru foru aldundiek emandako araudia berrikusterakoan hobekuntza nabarmena antzeman da; araudia indarrean zegoen 2018ko ekitaldian eta Mendekotasun Legean aurreikusitako eskubide subjektiboa arautzen du. Hiru foru aldundiek gizarte-zerbitzuei dagokien araudiaren barruan aplikatu beharreko araudia sistematizatu dute, Estatuko araudian eta dagokion garapenean -Lurralde Kontseiluaren akordioen bidez lortua-ezarritakoak betez.

Emandako araudiaren kalitatea aztertze aldera, mendetasunaren arloko administrazio-bideko eta jurisdikzio-bideko erreklamazioei buruzko estatistikak eskatu dira, bai eta errekurtsio horien prozesuko xedearen xehetasunak eta errekurtsio horiek jarri eta ebatzi arteko batez besteko denborak ere.

Taula honetan 2014tik 2018ra bitartean administrazio-egoitzan eta egoitza judizialean egindako erreklamazioen kopurua jasotzen da:

URTEA	Kopurua	
	Gora jotzeko errekurtsioak	Administr. auzi-errekurtsioak
AFA		
2014.....	121	2
2015.....	105	-
2016.....	108	2
2017.....	102	4
2018.....	82	1
BFA		
2014.....	128	(*)
2015.....	154	(*)
2016.....	183	(*)
2017.....	126	(*)
2018.....	166	(*)
GFA		
2014.....	497	-
2015.....	381	-
2016.....	408	-
2017.....	411	4
2018.....	415	4

(*) Ez da informaziorik eman.

AFA eta GFA 2018an aurkeztutako erreklamazioen xedea eta ebazteko batez besteko denborak honako taula honetan jaso dira:

ERREKURTSOAREN XEDEA	Egun kopurua (*)	
	AFA	GFA
ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK		
Ez onartzea, atzera egitea, iraingitzea.....	-	13
Graduko ebazpena.....	95	100
BAParen ebazpena.....	-	52
Etetea, bidegabeko ordainketen erreklamazioa.....	-	-
PROZEDURA JUDIZIALAK		
Ordainketa bidegabeak.....	-	390
Graduko ebazpena.....	-	421
BAParen ebazpena.....	-	-

(*) Errekurtsoa jarri zenetik ebazpenaren edo epaiaren egunera arte igarotako egunak.

BFAk ez du xehetasun hori.

A.2 2. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUN LEGEAN EZARRITAKO EPEAK BETETZEA

Kontuen Epaitegiaren 1.035 txostenean jasotako 2. gomendioaren arabera, organo eskudunek beharrezko neurriak hartu beharko lituzkete, bai kudeaketari bai aurrekontuei dagokienez, sei hilabeteko gehieneko epea betetzeko, interesdunaren eskaera aurkezten denetik zenbatzen hasita, mendetasun-egoeratik eratorritako prestazioak aitortzeko ebazpena emateko, Mendekotasun Legearen azken xedapenetatik lehenengoak ezartzen duen bezala, baita aitorten hori berehala gauzatzeko ere.

Kontuen Epaitegiaren 1.035 txostenaren arabera, EAEn, eskabideak sartu zirenetik mendetasun-prestazioa aitortzeko ebazpena eman zen egunera arteko batez besteko epea, 2011ko urtarrilaren 1etik 2013ko apirilaren 30era artekoa, txikiagoa zen hiru aldundietan Mendekotasun Legean aurreikusitako sei hilabeteko legezko epea baino.



2018ko ekitaldian fase edo prozedura bakoitzean batez besteko itxaronaldia honako hau izan da:

	(1)	(2)	Egunak (1-2)
PROZEDURA-FASEA	Prozeduraren fase bakoitzeko egunak	Araudi propioak zehaztutako egunak	Desbideratzea
AFA			
Eskabidearen eta gradu-aitorpenaren artean.....	53	75	(22)
Gradua onartzearen eta BAParen artean.....	53	45	8
BAParen eta prestazioaren onarpenaren artean.....	74	60	14
AFA GUZTIRA	180	180	-
BFA (*)			
Eskabidearen eta gradu-aitorpenaren artean.....	56	60	(4)
Gradua onartzearen eta BAParen artean.....	-	-	E/E
BAParen eta prestazioaren onarpenaren artean.....	-	-	E/E
BFA GUZTIRA	56	60	(4)
GFA (**)			
Eskabidearen eta gradu-aitorpenaren artean.....	96	-	E/E
Gradua onartzearen eta BAParen artean.....	-	-	E/E
BAParen eta prestazioaren onarpenaren artean.....	84	-	E/E
GFA GUZTIRA	180	-	E/E

(*) 2016tik aurrera, ebazpen berean jasotzen dira mendekotasun-gradua, banakako arreta programa eta dagozkion zerbitzuen eta prestazioen emakida. Dokumentazio osagarririk eskatu behar den kasuetan, batez besteko epea 69 egunetara luzatzen da.

(**) Ebazpen berean jasotzen da mendekotasun-gradua eta BAPa.



2017an eta 2018an, Administrazioak prozedura ebazteko duen 6 hilabeteko epea bete ondoren, prestazioa aitortu gabe edo, onartuta ere, hasi gabe, hildako onuradunen espediente kopurua honako hau izan da:

PROZEDURAREN FASEA	Hildakoak	%
AFA		
2017		
Baloraziorik gabe	11	% 39
Gradurik gabe	-	-
Gradu-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
Prestazio-aitorpenaren ebazpenarekin	17	% 61
2017KO EKITALDIA GUZTIRA	28	% 100
2018		
Baloraziorik gabe	4	% 19
Gradurik gabe	-	-
Gradu-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
Prestazio-aitorpenaren ebazpenarekin	17	% 81
2018KO EKITALDIA GUZTIRA	21	% 100
BFA		
2017		
Baloraziorik gabe	-	-
Gradurik gabe	-	-
Gradu-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
Prestazio-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
2017KO EKITALDIA GUZTIRA	-	-
2018		
Baloraziorik gabe	4	% 80
Gradurik gabe	-	-
Gradu-aitorpenaren ebazpenarekin	1	% 20
Prestazio-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
2018KO EKITALDIA GUZTIRA	5	% 100
GFA		
2017		
Baloraziorik gabe	-	-
Gradurik gabe	-	-
Gradu-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
Prestazio-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
2017KO EKITALDIA GUZTIRA	-	-
2018		
Baloraziorik gabe	-	-
Gradurik gabe	-	-
Gradu-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
Prestazio-aitorpenaren ebazpenarekin	-	-
2018KO EKITALDIA GUZTIRA	-	-

Hona hemen 2014tik 2018ra bitarteko ekitaldietan, mendekotasunaren kudeaketarekin lotura zuzena duten eginkizunak dituzten pertsona kopuruaren bilakaera, generoaren arabera berezia:

	2014		2015		2016		2017		2018	
LANGILERIA MOTA	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
AFA										
Zuzendaritza.....	4	-	4	-	4	-	4	-	4	-
Teknikariak (goi mailakoak eta kudeaketakoak)	35	2	35	3	35	3	35	2	35	3
Administrariak eta laguntzaileak	13	2	13	2	14	2	14	2	14	2
AFA GUZTIRA	52	4	52	5	53	5	53	4	53	5
BFA (*)										
Zuzendaritza.....	1	2	1	2	1	2	1	2	1	2
Teknikariak (goi mailakoak eta kudeaketakoak)	89	7	83	8	86	8	86	11	87	9
Administrariak eta laguntzaileak	49	11	56	9	52	10	57	9	53	11
BFA GUZTIRA	139	20	140	19	139	20	144	22	141	22
GFA										
Zuzendaritza.....	3	2	5	3	3	2	3	2	3	2
Teknikariak (goi mailakoak eta kudeaketakoak)	32	9	36	10	41	10	42	8	47	8
Administrariak eta laguntzaileak	9	3	16	3	16	4	14	4	16	4
GFA GUZTIRA	44	14	57	16	60	16	59	14	66	14

(*) Taulan ez dira jaso zeharkako egitekoak (zerbitzu orokorrak), ez ikuskaritza- eta kontrol-egitekoak gauzatzen dituzten langileak.

Jarraian, plantilla osoaren ratioa erakusten da, 2014tik 2018ra bitarteko ekitaldiei dagozkien aurkeztutako eskaera kopuruaren arabera haztatuta:

EKITALDIA	(1) Langileria	(2) Eskabideak	(2/1) Ratioa
AFA			
2014	56	1.986	35
2015	57	2.303	40
2016	58	2.276	39
2017	58	2.291	40
2018	57	2.194	38
BFA			
2014	159	13.899	87
2015	159	15.436	97
2016	159	16.446	103
2017	166	17.587	106
2018	163	18.576	114
GFA			
2014	58	4.561	79
2015	73	5.735	79
2016	76	5.180	68
2017	73	5.345	73
2018	80	5.104	64

(*) Eskabide berriak, ez dira gradua berrikusteko eskabideak barne hartzen.

Hona hemen egoitza-plazen eskaintzaren eta zerbitzu horien onuradunen kopuruaren bilakaera 2014tik 2018ra:

EKITALDIA	(1) Egoitza- plazak	(2) Egoitza arretaren zerbitzua abenduaren 31n	(2/1) %
AFA (*)			
2014.....	1.002	1.929	% 193
2015.....	1.016	2.007	% 198
2016.....	1.013	2.094	% 207
2017.....	1.041	2.128	% 204
2018.....	1.041	2.155	% 207
BFA (**)			
2014.....	6.442	6.347	% 99
2015.....	6.470	6.321	% 98
2016.....	6.558	6.380	% 97
2017.....	6.678	6.463	% 97
2018.....	6.471	6.313	% 98
GFA			
2014.....	5.445	5.364	% 99
2015.....	5.475	5.412	% 99
2016.....	5.557	5.487	% 99
2017.....	5.666	5.588	% 99
2018.....	5.748	5.672	% 99

(*) Egoitza-arretako zerbitzuen onuradunen datuak (2. zutabea) egoitza-plazen onuradunei buruzkoak dira (1. zutabea: egoitza propioak eta itunduak), baita egoitza pribatuetan zerbitzuarekin lotutako laguntza ekonomikoa duten plazen onuradunei buruzkoak ere.

(**) Ez dira barne hartu 11 plaza baino gutxiago eskaintzen dituzten desgaituentzako egoitzak.

Hona hemen eguneko egonaldietako plazen eskaintzaren eta zerbitzu horien onuradunen kopuruaren bilakaera 2014tik 2018ra:

EKITALDIA	(1) Eguneko egonaldietako zerbitzu-plazak	(2) Eguneko zerbitzuaren onuradunak abenduaren 31n	(2/1) %
AFA (*)			
2014.....	453	377	% 83
2015.....	453	422	% 93
2016.....	453	392	% 87
2017.....	483	379	% 78
2018.....	478	372	% 78
BFA			
2014.....	3.156	2.710	% 86
2015.....	3.143	2.757	% 88
2016.....	3.171	2.761	% 87
2017.....	3.146	2.662	% 85
2018.....	3.201	2.727	% 85
GFA			
2014.....	2.316	2.204	% 95
2015.....	2.341	2.243	% 96
2016.....	2.411	2.311	% 96
2017.....	2.454	2.347	% 96
2018.....	2.501	2.369	% 95

(*) Jasotako datuak eguneko zentroko plaza publikoei dagozkie, ez dago sare pribatuko daturik.
Okupazioa aldakorra da eta ia beti zentro guztietan eskariei erantzuteko adina plaza daude.



A.3 3. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: AUTONOMIARI ETA MENDEKOTASUNARI ARRETA EMATEKO SISTEMAREN INFORMAZIO-SISTEMAN (AMASIS) JASOTAKO DATUEN ETENGABEKO EGUNERATZEA

Mendekotasun Legearen 37. artikulua AMASIS ezartzea aurreikusten du, egungo Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030 Ministerioaren mendekoa, IMSERSOren bitartez, administrazio publikoen arteko informazioaren eta komunikazioaren eskuragarritasuna bermatzeko, datu horiek ezinbestekoak baitira autonomia erkidegoei gutxienerako maila likidatzeko eta mendetasunaren arloko estatistikak, erkidegoaz gaindiko interes orokorrekoak eta nazioz gaindiko erakundeekin hartutako konpromisoetatik eratorritakoak egin ahal izateko. Kontuen Epaitegiaren 1.035 zenbakiko txostenak AMASISen eguneratze iraunkor eta puntualerako beharrezko neurriak hartzea gomendatzen zuen, batez ere gutxienerako maila likidatzeko behar diren datuei dagokienez, ikusi diren gehiegizko atzerapenak saihestuz eskaeren alden eta baje erregistroan, mendetasun-egoera eta eskubidearen prestazioa eta gauzatzea onartzeko ebazpenetan, bai eta gradua edo prestazioa berrikusteagatik, lekualdatzeagatik, uko egiteagatik, heriotzagatik edo beste edozein zirkunstantziagatik izandako aldaketa edo baje kasuan ere, betiere AMASISen jasotako informazioa mendekoen benetako egoerarekin eta foru aldundiek erabilitako informazio-sistemetan dagoen informazioarekin bat datorrela bermatuta.

Abenduaren 27ko 1050/2013 Errege Dekretuak, Mendekotasun Legean zehaztutako gutxienerako babes-maila arautzen duenak, agintzen zuen autonomia erkidegoek, gehienez urtebeteko epean, beste sei hilabetez luzatzeko aukerarekin, AMASIS arautzen duen abenduaren 17ko SSI/2371/2013 Agindu berrian zehaztutako edukia egokitu eta AMASISera txertatuko zutela, errege dekretua indarrean sartzean aitortutako prestazioa edo zerbitzua jasotzeko eskubidea indarrean zuten eta izapide-aldian zeuden edo jada izapidetutako espedienteek zegokienez, eskuarteko informazioa osatu eta hobetearren. Gutxienerako mailaren likidazioa errazteko, 1050/2013 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak honako hau ezarri zuen: "IMSERSOk, errege dekretu hau indarrean sartu eta gehienez ere urtebeteko epean, autonomia erkidegoen esku jarriko du beren informazio-sistemak AMASISekin elkarreragingarri egiteko prozedura bat".

Era berean, Errege Dekretu horrek ziurtagiri bat egiteko betebeharra ezarri zien autonomia erkidegoei. Ziurtagiri horretan, modu sinesgarrian egiaztatuko da AMASISen jasotako informazioa bat datorrela likidazioaren xede den aldian mendetasun-egoeratik eratorritako prestazioen onuradunekin, abenduaren 17ko SSI/2371/2013 Aginduan jasotako ereduaren arabera.

Hiru foru aldundiek beren aplikazio informatikoan grabatzen dituzte mendetasun-egoera aitortzeko espedienteak izapidetzeak dakartzan kudeaketa guztiak, eta AMASISera bidaltzen dituzte elkarreragingarritasun-gunearen bidez. AMASISen datuak kargatzean gerta litekeen atzerapenaren arrazoia elkarreragingarritasun-gunean gertatzen den espedienteen geldiketa da, hainbat arrazoirengatik, hala nola, datuen mekanizazioko akatsak, elkarreragingarritasun-guneko baliozkotzeak ez betetzea, aplikazioen arteko desadostasunak, etab.



Foru aldundien aplikazio informatikoan sartutako datuen fidagarritasuna eta gero AMASISen sartzen direnena egiaztatzeke, bai eta eskuratutako estatistiken arrazoizkotasuna egiaztatzeke ere, batez ere onuradunen prozedurak amaitzeke batez besteko epeak, espedienteen lagin bat hautatu da, 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitartean jasotako eskaeren fitxategia abiaburu hartuta, eta datuak espediente fisikoetan jasotako dokumentuekin erkatu dira.

Lagin honen analisisan ez da gorabeherarik antzeman. Datu horiek AMASISen jasotzen dira ondoren. Arabako Foru Aldundian, hasiera batean AMASIS plataformak ukapenak egin bazituen ere elkarreragingarritasun-arazoen ondorioz, arazo horiek gerora zuzendu ziren. BFaren eta GFaren aplikazio informatikoez ez dute aukerarik ematen hasieran sortutako errefusoen berri izateko, nahiz eta gero zuzendu egin ziren.

Bestalde, Mendekotasun Legearen bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen duenaren arabera, zerbitzuarekin lotutako laguntza ekonomikoa, familia-ingurunean zaintzeko prestazioak eta laguntza pertsonalizatutako prestazio ekonomikoak kudeatzen dituzten erakunde eta organismoek Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroari eman behar dizkiote lege hau garatzeko arauetan ezartzen diren datuak.

Erregistro hori martxoaren 1eko 397/1996 Errege Dekretuak arautzen du, eta baliabide publikoen kargurako pertsona eta familientzako izaera ekonomikoko gizarte-prestazioak erregistratzea du helburu. Haren kudeaketa eta funtzionamendua Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari dagokio.

Erregistroan integratutako informazioak aukera ematen du gizarte-prestazio publikoak eta horien onuradunak identifikatzeko datuen kudeaketa dokumentala egiteko, prestazioetarako eskubideari eusten zaiola kontrolatzeko eta iruzurra saihesteko; horretarako, eraginpeko erakunde eta organismoen arteko ezagutza koordinatua eta datu-lagapena bideratu behar da, bai eta, informazio helburu hutsez, Erregistroaren eraginpeko erakunde, enpresa eta pertsonenganako irispidea eta kontsulta.

Foru aldundiek prestazioei buruzko datuak igorri behar dizkiote Erregistroari prestazioa aintzatesten, errebalorizatzen, aldatzen, eteten edo azkentzen den unean, edo, bestela, jakinarazpena ezin bada denbora errealean egin baliabide informatiko egokirik ez dagoelako, datuak prestazioa aintzatesten, errebalorizatzen, aldatzen, eteten edo azkentzen den hilabetearen hurrengoko lehen hamar egun naturalen barruan igorri beharko dituzte.

Hiru foru aldundietako batek ere ez du informazio hori Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa bidaltzen.



A.4 4. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: IDENTIFIKAZIO PERTSONALAREN ZENBAKIA

Identifikazio-zenbaki pertsonal bakar eta eskusibo iraunkor bat izateari dagokionez, Kontuen Epaitegiaren 1.035 txostenak gomendatzen zuen beharrezko neurriak hartzeko erabiltzaile orok identifikazio-zenbaki pertsonal eta eskusibo iraunkor bat izan dezan.

Hiru foru aldundietan, erabiltzaileek identifikazio pertsonaleko zenbaki bakar eta eskusibo iraunkor bat dute esleituta, Kontuen Epaitegiak 1.035 txostenean gomendatu bezala.

A.5 5. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: ONURADUNEN GAITASUN EKONOMIKO PERTSONALA ZEHAZTEKO ETA SISTEMAREN PRESTAZIOETAN PARTE HARTZE EKONOMIKOA IZATEKO IRIZPIDEAK

Kontuen Epaitegiaren 1.035 txostenak adierazi zuen desberdintasun handia zegoela autonomia erkidegoen artean onuradunen gaitasun ekonomikoaren balorazioari dagokionez, eta, Mendekotasun Legeak aurreikusi bezala, errenta zein ondarea kontuan hartuta zehaztu behar da. Hiru foru aldundiek bi parametro horiek kontuan hartzen zituzten ahalmen ekonomikoa balioztatzerakoan, eta gizarte-babeseke antzeko izaera eta helburua zuten araubide publikoen prestazioak batera jasotzen ote ziren kontrolatzen zuten. Bere araudia Lurralde Kontseiluaren 2012ko uztailaren 10eko Akordioan ezarritako irizpideetara egokitzeari dagokionez, AFAk bere egokitzapena egin zuen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 3/2013 Foru Dekretuaren bidez, eta BFAn eta GFAn araudia egokitzeko zeukaten.

Gainera, adierazi zen autonomia erkidego gehienek ez zituztela onuradunen ekarpen guztiak kuantifikatu jasotako zerbitzuen kostuari egindako ekarpen gisa. Hiru foru aldundien kasuan, ekarpen horiek behar bezala kuantifikatuta zeuden.

Gogoeta horiek Kontuen Epaitegiaren 1.035 Txosteneko 5. gomendioa eragin zuten, Gizarte Gaietarako eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren 2012ko uztailaren 10eko Akordiora egokitzeko arau-xedapenak onartzeari buruzkoa.

Kontuan hartuta Lurralde Kontseiluaren erabakietan gaitasun ekonomikoa zehazteko jasotako irizpideak ez direla lotesleak autonomia erkidegoentzat, Mendekotasun Legearen 14.7 artikulua araberaren proposamen izaera besterik ez baitute, aztertutako aldian indarrean dauden arau-xedapenak zuzentasunez egokitzen zaizkio Gizarte Gaietarako eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren 2012ko uztailaren 10eko Erabakiari.

A.6 6. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: MENDEKOTASUNARI LOTUTAKO GASTUAREN AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-KONTROLA

Kontuen Epaitegiaren 1.035 Txostenak adierazi zuen, oro har, autonomia erkidego guztietan gabeziak zeudela, izan ere ez dago mendekotasun-gastuei aplikatu beharreko kontabilitate analitikoko sistemarik, ez eta gastu horien kontabilitate-jarraipena egiteko beharrezkoak diren kontabilitate-tresnarik ere, esaterako; gastuok finantzaketa lotua izan behar lukete. Horrela, bada, Mendekotasun Legea aplikatuz eratorritako guztizko kostuari buruz Kontuen Epaitegiari emandako informazioa, hein handi batean, gutxi gorabeherako balioespenetan oinarritzen zen, mendekotasunak gizarte-zerbitzuetako guztizko gastuetan zuen ehunekoa egotzeko irizpide bidez gutxi gorabehera kalkulatuta. GFAn kasuan, txostenak adierazten zuen gastu horiek finantzaketa lotu izaera zutela. Hiru foru aldundien gastu-aurrekontuek ez zuten aurrekontu-programa bereizirik, Mendekotasun Legearen jasotako zerbitzuak eta prestazioak gauzatzeko eta finantzatzeko beharrezko ekintza guztiak garatzea helburutzat izango zuenik. Horrek guztiak ekarri zuen 1.035 Txosteneko 6. gomendioaren edukia. Gomendio hori mendetasuna artatzera bideratutako gastu ororen kontabilitate-kontrola ziurtatzeko beharrezko kontabilitate-prozedurak hartzeari buruzkoa da, behar bezala identifikatuta egon daitezen eta urteko kontuak osatzen dituen memoriak dagokion informazioa eskaini dezan ahalbidetzeko, baita finantzaketa lotua duten gastu horietara bideratutako kredituak gainerako gastuetatik bereizitako programa edo aplikazio espezifikoetan integratzeko ere.

Atal honetan, foru aldundien aurrekontuei dagozkien kontrol-tresna egokien ezarpena aztertzen da, mendetasuna artatzera bideratutako gastu ororen kontabilitate-kontrola egiaztatuz, gainerako gastuetatik bereizitako programa edo aplikazio espezifikoetan integratuta dauden ala ez, bai eta egiaztatze bitartekoak ere.

2018an, hiru foru aldundietako bakar batek ere ez du AMASISekin lotutako gastuak soilik jasotzen dituen aurrekontu-programarik; aitzitik, gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastuen barruan sartzen dira.

Zaila da mendekotasunaren arretarako aurrekontu-aplikazio espezifikoak ezartzea, arreta horren gastuak gizarte-zerbitzuen sareko antzeko zerbitzuak modu globalean barne hartzen dituzten kredituei egotzen baitzaizkie; gardentasunean aurrera egiteko eta mendekotasunaren guztizko kostua ezagutzeko, abenduaren 27ko 1050/2013 Errege Dekretuak, Mendekotasun Legean ezarritako gutxieneko babes-maila arautzen duenak, agindu zuen autonomia erkidegoek urtero ziurtagiri bat egingo dutela, mendekotasunaren arretarako kostua finantzatzeko Estatuko Aurrekontu Orokorretatik datozen kredituen aplikazioa eta EAEk xede horretarako egindako ekarpena jasoko dituenak. Hiru foru aldundiek urtero jaulkitzen dute urteko ziurtagiri hori (ikus A.10.1).

Mendetasunari lotutako gastuak gizarte-zerbitzuei dagozkien aurrekontu-programa guztien gainean AFAn, BFAn eta GFAn aitortutako obligazioen % 73,65, % 65,65 eta % 70,90 egiten du, hurrenez hurren.

A.7 7. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: ESPEDIENTE ELEKTRONIKOA EGITEA

Mendetasunaren kudeaketari buruzko espediente elektronikoak prestatzeko sistema bat izateari dagokionez, Kontuen Epaitegiaren 1.035 Txostenak gomendatzen zuen mendetasunaren kudeaketari buruzko espediente elektronikoak prestatzeko sistema bat ezartzea, IMSERSOrekin aldez aurretik adostuta, eta sistema hori Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren eta Segurtasun Eskema Nazionalaren eskakizunen mende egotea, bai egiturari eta formatuari dagokienez, bai igorpen- eta lagapen-zerbitzuen zehaztapenei dagokienez.

Txosten hau egin dugun datan hiru foru aldundietan espediente elektronikoa ezartzen ari dira.

A.8 8. GOMENDIOAREN JARRAIPENA: PRESTAZIOEN ADMINISTRAZIO-KONTROLA

Kontuen Epaitegiaren 1.035 txostenak autonomia erkidegoei gomendatzen zien hobeto kontrola zezatela mendekotasun-prestazioak jasotzeko eskubidea eteten zitzaien kasuen egoera, eta, bereziki, onuradunak bizirik zeudelako kontrola, bai eta ardura areagotzea bidegabeko ordainketetan itzulketa-espedienteak abiaraztean.

Atal honetan prestazioen administrazio-kontrola aztertzen da, sistemaren informazioaren egiazkotasunari eta egon daitezkeen akatsei erreparatzeari dagokionez, bereziki prestazioak jasotzeko eskubidea amaitzen den kasuetan, eta bidegabeko ordainketen kasuan itzulketa-espedienteak abiarazteko prozedurari dagokionez.

Horrez gain, beste alderdi batzuk ere aztertu dira, hala nola onuradunen koordainketan sortutako ordaindu gabeen kontrola, prestazio ekonomikoak eman ziren xederako eta sistemaren funtzionamenduaren ebaluaziorako erabili izanaren gaineko kontrola, bai eta horien ikuskapena eta kalitate-kontrola ere.

Oro har, ezarritako prozedurak egokitzat jotzen dira.

A.8.1 SISTEMAREN INFORMAZIOA EGIAZTATZEA ETA AKATSAK ATZEMATEA, BATEZ ERE PRESTAZIOAK JASOTZEKO ESKUBIDEA AMAITU DEN KASUETAN

Hona hemen foru aldundi bakoitzak ezarritako kontrol-neurriak:

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Hiru hilean behin datuak gurutzatzen dira NISAEren zerbitzuen bidez, prestazio ekonomiko onuradunei aplikatu beharreko bateraezintasunik edo kenketarik dagoen egiaztatzeko.

Astero alderatzen da heriotzei buruzko informazioa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko datu-basearen bidez. Hilero alderaketa bat egiten da AMASISetik bidaltzen den fitxategiaren eta Estatistika Institutu Nazionalen artean.



Prestazio ekonomikoen koordainketa edo zenbatekoa zehazteko, onuradunen gaitasun ekonomikoaren kalkulua egiten da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren informazioa eskuratuz, eta beharrezkoa den kasuetan, Katastroko Zuzendaritza Nagusiaren informazioa NISAE bidez eskuratuz osatzen da.

Prestazio ekonomikoen onuradunen mendekotasun-graduan gertatzen diren aldaketek automatikoki eragiten dituzte dagozkien mugimenduak prestazioen zenbatekoan.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Oro har, mendetasunari buruzko datuak udaletatik iristen dira BFARA, eta udal horiei dagozkie balorazio-eskaerekin batera doan informazioa egiaztatzea. 0) Horiek automatikoki grabatzen dira aldundiko datu-baseetan, bai BFAREN aplikazio baten bidez (BiscayTIK) bidaltzen direnean, bai egoitza elektronikoen edo erregistro elektronikoen bidez.

Nolanahi ere, identifikazio-datuak automatikoki gurutzatzen dira herritarrei arreta emateko datu-basearekin. Datu-basea BFA osorako da, eta Ogasun eta Finantza Sailak kudeatzen du.

Kontu korronteei buruzko datuak Ogasun eta Finantza Sailaren esku dagoen informazioarekin gurutzatzen dira. Nominen kasuan, banku-transferentzia egiteko unean inkongruentziarik badago, erakundeek inkongruentzia horiek itzultzen dituzte, zerbitzu sustatzaileak banan-banan trata ditzan, eta, hala badagokio, sistemaren informazioa eguneratzeko.

Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrekin eta Eusko Jaurlaritzarekin (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) ere egiten dira gurutzaketak, eta erabiltzaileen zerga-informazioa ere eskuratzen da, koordainketari begira duten gaitasun ekonomikoa ezartzeko.

Erabiltzaileak bizirik egotearen kontrolari dagokionez, aldizka, Hilotzen Sanitate-alderdien Poliziaren Zerbitzuaren, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Erregistro Zibilaren informazioa jasotzen da onuradunenarekin gurutzatzeko, eta, hala badagokio, dagokion prestazio ekonomikoa bertan behera uzten da. Era berean, heriotza baten edo pertsonen identifikazioarekin zerikusia duen beste edozein zirkunstantziaren zeinahi jakinarazpen "karpeta soziala" deiturikoan grabatzen da, eta horretaz baliatzen dira Gizarte Ekintza Sailak kudeatzen dituen zerbitzu eta prestazio guztiak.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Prestazio ekonomikoen kasuan, horiek kalkulatzeko aldagai jakin batzuk hartzen dira kontuan (mendekotasun-maila, gaitasun ekonomikoa, Mendekotasun legeko edo gizarte-zerbitzuen zorroko beste zerbitzu batzuekiko bateragarritasuna, onuradunak helburu bereko beste prestazio bat jasotzen duen eta zerbitzuaren gastua). Aldagai bakoitza egiaztatzeko, prestazioa onartu aurretik dagozkion kontsultak egiteaz gain, aldian behin gurutzaketak egiten dira GFako beste sail batzuetako edo beste administrazio publiko batzuetako fitxategiekin.



Mendekotasunaren balorazioa prestazio ekonomikoak kudeatzen dituen sailak berak egiten du, eta egunero jakinarazten dira prestazioetan eragina izan dezaketen balorazioetan izandako aldaketak.

Ahalmen ekonomikoari dagokionez, urtero ofizioz eguneratzen da prestazioa, aitortutako azken ekitaldiari dagokion errenta-aitorpena oinarri hartuta.

Onuradunak bateragarri egiten badu prestazioa Mendekotasun legeko edo gizarte-zerbitzuen zorroko beste zerbitzu batzuekin, egunero jakinarazten dira prestazioari eragin diezaioketen aldaketak.

Onuradunak, aldi berean, antzeko izaera eta helburu bereko beste prestazio bat jasotzen badu, Prestazioen Erregistroko aplikazioan zuzenean kontsulta egin ondoren egiaztatuko da. Gainera, urtero datuak pentsioekin gurutzatzen dira (batez ere jakinarazi gabeko baliaezintasun handiko pentsioen edo hirugarren pertsona baten laguntzarekin ardurapeko seme-alaba bakoitzeko diru-esleipenen aitorten berriak detektatzeko). 0) Kotizazio gabeko pentsioa GFako Gizarte Politiketako Sailean bertan kudeatzen da.

Zerbitzuak Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoan edo Zerbitzuarekin Lotutako Laguntza Ekonomikoan egindako gastuari dagokionez, onuradunei aurre-aurreko urtean egindako gastuaren justifikazioa eskatzen zaie urtero. Era berean, urtero gurutzaketa bat egiten da Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekin, egiaztatzeko Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoko espedienteetan agertzen diren laguntzaile pertsonal guztiak altan daudela Gizarte Segurantzaren, eta aldez aurretik jakinarazi dutela jada kotizazio-oinarria. Bi hilean behin, datu horiek errolda-fitxategiekin gurutzatzen dira, prestazioa jasotzeko eskubideari eusten zaiola egiaztatzeko, eta egiaztatzen da titularra oraindik ere Gipuzkoan bizi dela, eta zaintzaile ez-profesionala mendekotasuna duen pertsonarekin bizi dela, hala badagokio.

A.8.2 BIDEGABEKO ORDAINKETEN KASUAN, ITZULKETA-ESPEDIENTEAK ABIARAZTEA

Sistemaren prestazio bidegabeak itzultzeko prozedurari aplikatu beharreko araudia foru aldundi bakoitzaren zerga-kudeaketa eta diru-bilketa arautzen dituen da, oro har. Hona hemen 2018an izapidetutako itzulketa-espedienteak:



KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Kop.	Zenbat.	Bildua
AFA			
Adinekoen egoitza publikoan ordainketa geroratzea	52	1.471	124
Familia-inguruneke zaintzan prestazio ekonomikoa bidegabe jasotzeagatiko itzulketak.....	148	95	94
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa bidegabe jasotzeagatiko itzulketak.....	17	17	17
Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa bidegabe jasotzeagatiko itzulketak..	22	38	38
AFA GUZTIRA	239	1.621	273
BFA (1)			
Familia-inguruneke zaintzarako prestazio ekonomikoa	798	199	(2)
Gizatek (laguntza gaiak)	1	1	(2)
Egoitzak (banakako laguntza)	40	40	(2)
BFA GUZTIRA	839	240	
GFA (1)			
Aldi baterako egoitzako egonaldia.....	-	6	(2)
Baldintzak ez betetzea	-	532	(2)
Heriotza.....	-	48	(2)
Egoera aldatzeagatiko aldaketa	-	168	(2)
Egoitzan luzerako sartzea	-	64	(2)
Antzeko osagarria jasotzea	-	26	(2)
Akatsak zuzentzea	-	24	(2)
Baliogabetzeak, alegazioak edo gora jotzeko errekurtsioak aurkeztu ondoren	-	(301)	(2)
Borondatezko aldian kobratutako zenbatekoa			462
Betearazleari eskualdatutako zenbatekoa.....			78
GFA GUZTIRA		567	540

(1) Saillkapena, dagokion aldundian eskura dagoen informazioaren arabera.

(2) Informazio-sistemak ez du uzten jasotako zenbatekoa kontzeptu hauen arabera sailkatuz eskuratzen.

A.8.3 ONURADUNEN KOORDAINKETAN EZ-ORDAINTZEAK KONTROLATZEA ARABAKO FORU ALDUNDIA

Erabiltzaileei dagozkien zerbitzuak erabili ondoren zor zaizkien ordainagiriak itzultzearen ondorioz sortutako zorrak erabiltzaileei edo haien erreferentziazko pertsoneri edo legezko tutoreei, hala badagokio, jakinarazten zaizkie. Prezio publikoen foru araudiak 30 egun naturaleko epea ezartzen du ordainketa egiteko edo zatikapena eskatzeko, eta horrek interesak ordaintzea dakar berekin. Epe hori igaro eta ordainketa, geroratze-eskaera edo errekurtsorik aurkeztu ez bada, zor hori Diru-bilketa Betearazleari helaraziko zaio, premiamendu-bidean erreklamazio-prozesuak jarrai dezan.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Zerbitzuen koordainketa, oro har, onuradunaren izenean dauden prezio publikoak likidatuta egiten da, eta BFA arduratzen da zerbitzua ematen duen erakunde pribatuari kostu osoa ordaintzeaz, hala badagokio.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Alde horretatik, likidazioa egin ondoren (sail sustatzailearen eskumena, borondatezko aldian ordaintzeko likidazioa denean), Ogasun eta Finantza Saila da likidazioa biltzeko ardura duen unitatea, baita fase betearazlean bildutakoa ere, dagozkion errekaruekin.

Ogasun eta Finantza Sailak ez-ordainketen berri ematen dio Gizarte Ekintza Sailari, eta, hartara, informazioa kasu bakoitzaren jarraipen- eta koordinazio-lanetan erabiltzeko aukera ematen dio.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

15/2015 Foru Dekretuak, ekainaren 2koak, mendekotasuna duten pertsonen arreta emateko foru eskumeneko zentroetan erabiltzaileek duten parte-hartze ekonomikoa arautzen du. 0) Onuradunak koordainketa egiten du zerbitzua ematen duen erakundeak dagokion faktura kobratzeko aurkezten duen unean, eta ordainketa erakunde zerbitzu-emaileari berari egiten zaio. Ordaindu ezean, erakunde emaileak erabiltzaileari zorra lehen aldiz jakinarazten dionetik sei hilabete igaro ondoren, Gizarte Politiketako Sailari bidaliko zaio dokumentazioa, zorra bere gain har dezan eta Erakunde Kudeatzaileari zor dion zenbatekoa ordain diezaion.

Une horretan, erabiltzailearen egoera ekonomikoa eta ondarezkoa aztertzen du Sailak, zorra kitatzeko aukerak balio-neurtzeko (zorra geroratzea edo zatikatzea, betearazpen-bidetik erreklamazioa egitea...), eta zorra erabiltzaileari edo haren legezko ordezkariari kobratzeko prozedura abiarazten da.

A.8.4 PRESTAZIO EKONOMIKOEN ERABILERA KONTROLATZEA, ZEIN HELBURUTARAKO EMAN ZIREN AINTZAT HARTUTA

Prestazio ekonomikoak eman ziren helbururako aplikatzen direla kontrolatzeari dagokionez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 10.1 artikulua gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen betebeharrak ezartzen ditu, eta, zehazki, prestazioak eman zirenean izan zuten helbururako bideratu behar direla. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 90.2 artikulua araberak, prestazio ekonomikoak ematea eragin zuen helburua ez den beste baterako erabiltzea arau-hauste larria da, eta ahozko eta idatzizko ohartarazpenarekin eta 201 euro eta 600 euro arteko isunarekin zigortzeaz gain, arau-hausteak bidegabeki irabazarazitako zenbatekoa ordaindu beharko da.

Arabako Lurralde Historikoan, 39/2014 Foru Dekretuak autonomiarako eta mendetasunaren arretarako sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen ditu. Lege horren 47. artikulua araberak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari dagokio prestazio ekonomikoaren jarraipena egitea, prestazio horiek eman ziren helburuetarako aplikatzen direla eta prestazio ekonomiko horien bidez titularrek beren beharrak dagokion mailarekin eta kalitatearekin bideratzeko arreta egokia jasotzen dutela egiaztatzeko, eta, gutxienez, urteroko jarraipena egiten zaio.

2018ko bigarren seihilekoan, Arabako Foru Aldundiak berrikusi zuen onuradunek behar bezala erabiltzen zituztela Zerbitzuarekin lotutako laguntza ekonomikoak. 0) Horretarako, 346 onuraduneko lagin bati (2017an 1.390 titular izan ziren guztira) eskatu zion egindako gastuen justifikazioa, eta ez zuen aurkitu prestazioaren erabilera bidegabekirik.



Bizkaiko Lurralde Historikoan, gurutzaketa informatikoez gain (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekin, Ogasun eta Finantza Sailaren informazio fiskalarekin, Hilotzen Sanitate-alderdien Poliziaren hildakoen datuekin, etab.), prestazio ekonomikoen arloan, Prestazio eta Diru-laguntzen Zerbitzuko gizarte-langileek kasuaren jarraipena eta koordinazioa egiten dute, eta telefono bidezko esku-hartzeak egiten dituzte, onuradunaren egoera zein den jakiteko. Horrek era guztietako informazioa eskuratzeko bide ematen du.

Egiten diren kontrolak 2017-2019ko Gizarte Zerbitzuen eta Prestazioen Ikuskapen eta Kontrolerako Plan Orokorrean jasoak daude, Ikuskapen Ofizialeko Plana bera baino zabalagoa dena, eta plan horren Urteko Ekintza-plana dagokion ebaluazio-txostenaren xede da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Zerbitzuarekin lotutako laguntza ekonomiko baten eta Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomiko baten onuradunek urtero egindako gastua justifikatu behar dute, eta horretarako, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, aurreko urtean egindako benetako gastuaren justifikazioa aurkeztu behar dute.

Urte bakoitzaren hasieran, Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomiko baten onuradun guztiei bidaltzen zaizkie errekerimenduak, aurreko urtean egindako gastua justifika dezaten. Gainera, onuradunen justifikazioa eskatzen zaie zerbitzu horiek ematen dizkieten enpresei, hala badagokio. Zerbitzuarekin lotutako laguntza ekonomikoari dagokionez, zerbitzua ematen duen enpresari (egoitza-zentroa edo eguneko zentroa) gastua zuzenean justifikatzeko eskatzen zaio.

Betebeharra betetzen ez bada, lehenik eta behin prestazioa aldi baterako eteten da, eta egoera horrek jarraitzen badu, azkendu egingo da prestazioa eta justifikatu gabeko zenbatekoak erreklamatuko dira.

A.8.5 SISTEMAREN FUNTZIONAMENDUAREN EBALUAZIOA, IKUSKAPENA ETA SISTEMAREN KALITATE-KONTROLA

Goi ikuskaritza

